


mikel lasa eta
amaia lasa-ren

POEMA BILDUMA



irakur sail

POEMA BILDUMA

POEMA BILDUMA

DONOSTIA

1971

D. L. S. S. 73/71

Editorial Herri-Gogoa
Secundino Esnaola, 5
San Sebastián

Banatzailea:
Iñaki Beobide
Ferrerías, 1 acc. 3
Donostia

IZARRA IRARKOLA - PEÑA Y GOÑI, 13 - DONOSTIA

AMAIA

Nere aitari, eta nere amari kanta
urtas ertzean bizi emateagatik.

**ITSASOAREN MARIA GORA
MARIA BEHERAN HARTU
NITUEN HITZAK**

Nereak ez diren
lurralde hauetatik
ihes egin nahi nuke

Nereak ez diren ur hauek
alde batera
utzi egin behar ditut.

Haitz sendoaren biribiltasunean
nere bizitzaren hitza
lortu nahi nuke

Biribiltasunean
sendotasunean
haitzaren gainean

a

e

i

o

u

berri bat esan nahi nuke.

Egunean
desioaren gogoa hila.

Gauean
gogoa desiratua.

Beti, ia beti
nahi behar izan, bainan...

Gehienez
hutsaren hasarrean.

Kaiuaren begiak begiratu nituen
arratsalde brumatsu, hits hartan
begi biribil haietan erantzun bat
aurkitu nahian.

Kaiua nigana etorri
muxu bat eman eta
hegarekin lepoa eutsi zidan,
nere min tristea goxatu nahian.

Eta haitz geld, ixil hartan
sartu nintzan,
maite gogoa izpi bat ixil arazi nahiz.

Mutikoa ez dute maite;
ama ba du,
bainan mutikoa ez dute maite.
Mutikoa bakarrik dago
aita ba du,
bainan mutikoa beti bakarrik dago.

Etxeko lau horma ustel artean,
hedoiartze guztiak; lehertzen zaizkio;
lau horma ustel horien artean,
ezin iraun dute, ametsek.

Mutikoak, ur ertzean exerita
ikusten ditu nola doazen ur negarrak,
haitzaren goitik, beheruntz
harriaren gogorrari biguntasuna ematen.

Inork ez du mutikoaren haize mingotsa laztandu,
itsasoa bera ere maria behera urrunduz joan da.

Mutikoak ba du ama, aita ere,
bainan mutikoa haitzaren zuloan bakarrik datza.

Kaiu erdi hilaren
hegabea sartu ginen
gure maitasun hila
erdi hila bare
bihurtu nahian.

Ez zaitez joan,
eman zaidazu zeure gorputzaren beroa
eta utz zeure ezpainari nere amodioa dastatzen;
ez zaitez joan,
atoz,
zeren, gorputza somatzen dut gogortzen
eta neure burua hiltzen,
ez zaitez joan,
atoz nere bigunaren babesera.

Basoak
besoak
altxatu egin ziren;
zutik zuzenduak
gora
igo ziren,
biribila hautsiaz.

Lau punta zorrotzeko kutxak
ez zion haizeari
biribila egiten utzi.

Zutik
biribila zorrozturik
altxatu ziren.

Eta lastoak
ez zuen
gehiago deus berotu

Zutik
zuzen
altxatu ziren,
baso,
beso
haiek.

Bihar arte
ez gara
elkarrekin izango.

Artean
bihar arteko tartean,
bihar hori
izango ez den
kezkan.

Jaungoiko guztiak ukatzen dituen
emakume bat naiz.

Atzo,
zeruko jaungoikoa ukatzen nuen,
gero
infernukoa, eta
gaur,
lurreko jaungoikoa ukatzen dut.

Dotrina guztien aurka altxatzen naiz.

Atzo,
zeruko pekataria nintzen,
gero
infernukoa, eta
gaur,
lurreko pekataria naiz.

Hutsunean igeri dabilen emakume bat izaten naiz.

Zorotasunak
sortutako
amets
zoro
zoragarria,

borobilaren
borobilean
borobilduta nengoela,
zen,

zorotasunak
sortutako
amets
zoro
zoragarria.

Egun batean Mari Sorginari
suzko emetasuna biztu zitzaion
bero beroa,
oso indartsua.

Haurtzaroan gauza gaizto bat bezala
erabili zuen;
haiek zikina zela zioten
eta betiko lotarazi zuen,
zenik ere ez jakiteko.

Mari Sorginaren emetasunak
urte luzeak lozorroan zeramazkien,
gorputzak mogimendu gabeko aide triste bat dantzatzen
zuen,
hoztasun urdinean.

Gau batean jolas batean sartu zen,
eta aho batek bere gorpptza laztandu zuen,
iluntasunaren itzalean.

Mari Sorginaren emetasuna lozorroan zegoen
esnatzera doa;
beltza gorri bihurtu zen,
eta jolaseko jostailuak,
ez ziren aurrerantzean zikinak izan.

Otoika,
Oihuka, seksoarekin,
seksoaren abotsa ixiltzeko,
uneak igaro ziren,
saxoa ixildu zen,
eta seksoa oihuka hasi zen,
eta oraindik ez da seksoa ixildu.

Hitz hitsa zen egun harek esandakoa;
zuhaitzak hostoz hutsak,
ez euri,
ez elur,
ez haize,
ez ekaitz, ez ziren eguraldian nabaitzen,
grina guztiak hilak ziren
eta sentimenduak zapalduak.
Nere garaiko gizartearen zentzua,
zentzurik gabeko zentzua,
odolezko hibaia biztuko duten zentzu galdua.

Luzaroan zai,
behar bada urdinari, behar bada gorriari,
edo beltzari,
edo hutsari;
bainan zentzurik gabeko beroa hoztuko da,
kolore nahasiak, nabarrak,
urdindu,
gorritu,
edo beztu egingo dira, edo hustu.

Bizitzak, emakume idortuaren sabela maizago bigunduko du,
Oihanaren zuri nazkagarri hau lehertuko da.
Eta berdin da amaian,
burua haundia,
beltza,
hutsa,
hotza,
latza ikuitzea.

Kaiuaren orde
usoak
ikusten nenbilerik;
katuaren anka tartean
nahastuta
ibili nintzen.

Gorputzak betiko balantza ahulean.

Mendiaren bular arroa
itsasora erori zen,
zulo huts
urdin ilun
bat
sortuaz.

Denborak hogei urte egin zituen eta
gorputzaren balantzak makaldu.

Hogei urte haietan
mendi arroak
sortutako zuloa,
kaiuaren kabia izan zen,
bainan nik
luzaroan
uso zuriak ikusi nituen.

Sekulan
goxatu ez dituzun
punta gorriko titi zuriak;
emazteak
edozeini,
bidean ezkeintzen zizkion
goxotasun eskarian.

Biharamunean,
emaztea
geroaren aurpegia
ikusi nahian
zebilen.

Buru hutsa
buru huts harekin
begiak higitzen nituen,
nere gelako mila aurpegi diferenter
so eginaz.

Bizia balu bezala
haren maitasun hilak;
eta aurpegi haiek nere ohera
haren gorputza beroa
ekarriko balidake bezala.

Buru huts, hotz harekin, hotzez,
zutaz amets egin nuen
eta biharamunean
nere burua betea
eta haren gorputza hurbil
aurkitu nituen.

Ba dirudi inoiz ez garela aurkitu,
munduko bazter honetan;
kaioa inolaz mendira joan ez den bezala.

Bilutsirik utzi nauzu hiri zuri honetan,
hain zikina den zuri honetan,
eta oihuka nabilkizu,
oihan zuri honen menbetik
irten nahian.

Ohean

narru gorri, eskuak han nituela
argi itzalean ilunpearen izkutuan,
amodioaren heriotzara ninjoan.

Ohe guztia bihurtzen nenbillen,
maindiriek eta estalkiak bihurritasunean
nahastuaz.

Pentsamenduan muxu goxo bat
pentsamenduekin, bi beso bizkar gainean
desioarekin, nahian, laztan herioan.

Esku ximelduak daki, formarik
gabeko eskuak ez dakiena: bi-
zia sortzen.

Eskuaren tankera ihartuak
etxura xamurra du.

Eta eskuak egunero ez dio,
eta dionean, deus ez dio.

Esku ihartuaren tankera xamurra,
porzelanezko arlekinen desafio ixiltarazia.

Gizon haiek
beren indarrak, haragiak, lurra, heriotza bihurtzen...
gizon haiek
izerdi saminean
denak batean, bat eginda, mundu bat egiten
ikusi nituenean...

Lotsa senditu nuen,
ni, han, neure prolemarekin,
neure pentsamenduarekin,
neure biziarekin,
ni, neure buruarentzat aurkitu nintzanean...

Lotsa senditu nuen
eta aurpegia gorri-gorri ipini zitzaidan
gizon haien aurrean.

Une batean
gure gutiziak
ametsari lotuko bagenizkioke.

Une batean
gure itxura ihartuak
ikusiko bagenituzke.

Une batean
bizitzeko ametsa
egingo bagenuke.

Une batean
ametsa
egia
bihurtuko genuke.

Gizona galdu dutanez gero
naturan sartzera noa,
nere bihotza berriro bizitu dedin.

Naturaren harria joan zait
eta ito ez nadin
lurraren haizez beteko dut neure arnasa.

Gizona etor dedin zai nagoen bitartean,
sar bitez naturaren indarrak
nere zainen odol gorrian;
haragia izpiritu bihur ez dedin.

Izpiritua,
haragiaren gutiziak,
izakera,
Zentzurik gabeko heriotza;
hala ari naiz pentsatzen,
neure sabelari bizia ukatzen ari naizenean,
neure besoak bakardade ahulean,
luze erortzen direnean.

Atzo, bi
gizona eta andrea
biek, maitasunaren indarrez
gorputzak elkartzen,
amodiozko dantzan,
burruka dantzan,
grina guztiaren asetasunean,
orduak igaro ziren,
gutiziak asetu ziren,
eta amodiozko besarkadak
piskanaka, lasaituz joan ziren.

Ez emakume
ez ama
ez eme
ezin izanik.

Itzal tantolak sapaiazen ertz hartan jarraitzen zuen;
beste ertz bat behar zuen,
bainan beldurtuta, beti bere ertzean jarraitzen zuen;
Itzal tantolak beti ertz hartan
ezin haunditurik,
ezin zabaldurik,
argia
ezin sorturik, jarraitzen zuen.

Ez emakume
ez ama
ez eme
ezin izanik.

Emakumetasunean
amatasunean
galduak,
libertatearen ordezkari
segurantzari helduak.

Ez emakume
ez ama
ez eme
ezin izanik,

igarotzen genituen
geure egunak.

Beroa ez hoztutzeko,
zabala ez hestutzeko,
hegoak iriki nituen,
eta hegadakada zabal, luzeetan hamairu buelta eman nituen;
eta ez zerua,
eta ez lurra,
ez nituen harrapatu,
ahaztu egin zitzaidan lurrekoa nintzela
eta sustrairik gabeko hegoak iriki nituen.

Lur-ikara batean,
bazterraren ertzean
ertzaren ertzean,
gorputz biribilduan
zabala hestutzen
beroa hoztutzen.

Amaren maitasuna,
eta aitarena,
eta anaiarena,
eta senarrarena,
 itsasoan galdu nituen.

Haitz zulatuaren loreak,
haitz zuloaren itzala,
arratsalde odolgarri batean,
ikusi nituen imajinak.

Bihotzaren sentsua haizez puz-
tua dagoen bitartean, ez da gi-
zatasuna, emakumetasuna, lor-
tzen.

Haizea bezalako izpirituak
ez dira inoiz,
lurraren usaina nabaitzera hurbildu.

Gu, lurrean bizi garen jendea gara.

Gure zentzuak lurraren odola galdu du;
ba goaz harat,
ba gatoz hunat,
mila oztopo gaitik zigortuak,
azkenaren kolorea ezin nabaiturik.

Ez da ardoaren kulpa,
ez da lurrarena ere,
itsasoak ez du zer ikusirik
eta amodioek soseguz betetzen gaitue.

Alderantziz gure gorputzak izpiritu bihurtuta,
haizearen zurrunbiluan dabiltz
eta batera, eta bestera doaz,
haizearen izpiritua zurgatu nahian.

Bainan gu gara lurraren usaina daramagun,
jende erotuak.

MIKEL

TAMARIZA ETA PIKONDOA

I. — AMORIO GALDUAK

*(goiz heltzen diren pikoak
maite ditu nere animak. ATSULAR)*

Euriaren tristea.
ari ta ari atergabeko amaian.

Katuak ganbaretan lo daudez gau t'egun
denborari denbora emanaz...

Paradisu galduetako oroipena da
nola palmondo haundi baten pean
itzala genuela adiskide
nola tamariza ta pikondopean
ari ginen pekatu
haragizko pekatua
euriagatik triste ari
triste diren bezela tamarindoaren adarrak
itsas bazterrean
euriaren pean
triste ta ustel palmondoa
udazkenean
«chalet» ubelaren jardinean
Zarauzko plaiatik ez hain urruti.

Nola bion gorputzak gurutzaturik
(ba ginakien ez genuela elkar maite)
bestearengan bilatzen genduan
gurean ez daukaguna:
mundu axolakabeak itsaso izugarriak plaiaren bakardadeak
ematen ez ziguna: maitasunaren arrastoa.

Arratsalde hura munduaren azkenengo eguna zen
t'amor eman genion bizitzari
Udaberrian kantatu nuen hasierako egunaz ez naiz oroitzen
Jainkoak gizona tankeratu zuen egunaz
bizirako arnasa ixuri zioenaz
ez naiz oroitzen
paradisuko azken egun hontan.

Katuak ganbaretan lo daudez
tolesgabeko ametsetan
urteak eta denborak deusezten
edo ta denbora milaka ugaritzen.

«DANA» ta «NADA»-k zirkulua bukatzen dute.

II. — DENBORAREN MARKA

Ene biziaren tristeziatzko
sinoak
zeinek bait du urtearen zehar
biziaren hari guztia kolorazten
zeinek bait du ene arpegiaren eskultura
beheraka zimurrez markatzen.

Itsas-ontzi aintzinako kobrearen metal zaharrak
ez du ene itxura tristearen tristura
eta plaia-hondar-hustuak udazkenean
ez du ene etsipenaren zapore garratza.

Tamariza eta pikondoak
nere haurtzaroko izarotik
denak erroz desustraituak izan dire denak!
Izagak soilik haizeari buru emanaz
tristeziatzko salmoak
murmuratzen dituzte
ipar-haizearen eraginez ta berresaten:

«Oi gure denbora hunen desolamentua!».

BERTSO URRATUAK

Ez dezagun poema zeru zolan ixeki
kaio baten orrua edo txalupa baten gibel borobila
edozein poema baino ederrago direnean.

Poetari haurtzaroan diruaren kutizia gezurrez kendu zioten
bait zekiten jakin ideia hutsa zein mixerablea den.
Baina nik diot:

Gure poemaren egia odolarekin ziurtatzen ez badugu
grazirik gabeko pailazoak garela.

Poetak ez badu bere indarrez
ezaren barrunbea aztertzen
zein ausartuko ote usteldurikako egiak
argitara ematen?
Baina Leon Felipe-k dio:

Gizonaren seaska ipuiz eragiten dutela...
gizonaren negarra ipuiz estaltzen dutela...

Zeini ez zaio laket esatea:
Ni poeta arlote bat naiz poeta baserritarra
ta pinpilinpauxaren mila koloreak besterik ez dut ezagutzen
ta nere hiztegiko hitz itsusienak «arrosa» eta «krabelina»
Baina nik diot: [dira.

Zalduntxoen oinordea herriarena ez den artean
ez dudala sinestuko zalduntxoen sasi-ipuian.

Gure hiztegiko zeinbat hitz doaz
eta orain ez dira ezer ez bada
memoria desmemoriatu baten oroitzapen gazigeza.
Bainan euskaltzaleek balekite jakin aberatsegia dela
hizkuntzarik txiroena ere
sakelan daramagun istori apurtu hau
kontatzeko!

Egunsenti izoztua. Batbatean
gaua beltz luzearen ondotik
trenaren etengabeko ritmo hirukoia
mutu geratu zen. Ixilune izoztua
batbatean. Jaun Zuria.

Urrutitik etorri amets zurrunbiloa
bata bestearen ondotik
marmol-irudiz bihurtu zen.
Multsoaren ale guztiak
bata bestearen ondoren
etenik, bereizturik
A-le-rik-a-le-bat-ba-te-an
ba-kan-du-ak-a-le-tu-ak.

Ene iratxoetan iharrenak enekin neramazkin
zazpi-urte-geroz gibeleratuak.

Denbora etena. Geldo gotortua.
Ene begiak haundiz haundi ideki nituen
eta kolpean berriro hiriko
kalbario mendia agertu
mixeriazko txabolak
lerroz lerro lurrean etzanikan
doi-doiak muñoari atxikiak.
Mendi muño kaska-motza
mixeriaren azidoak errea.
Azken egunean agian
gizonaren soada diteken bezelakoa.

Hemen zegoen egon gizona
txaplata beltz iduria
errukigabeko eguzkipean
bidexiorrean kixkaldua
ari litsetan xahutzen ari den
marrazki beltz asaldatua.

itsas aurrean egin nuen ametsa
eta emakumearen maitasunaren desioa
itsas ertza neurri gabea da eta
harrezkero bien gorputzak uztarturik
[zeuden
oihal zuri bat itxura aldatzen urrun
[nabarrean
eta dagoaneko bien gorputzak uztartu-
[rik daudez.

ESPERPENTO

Ihauteria da
eta ihauteri gauean
kale ixiletan barna goazela
ipar-aldeko hiri haundi honetan galdurik
burdelak ikusten
larehun pesetakoak eta irurehunekoak
gure boltza urriarentzat nahikoa ehunekoak.
Denak dira emakumeak
eta gorputz uxatuen xarma ustela bilatzen dugu.

Mauka ta mauka ar-emeak
izorkeria egiten eliz-zaharreko paret bazterrean.

Berdin da bakardade honetan
arpegi ederrak hala itsusiak
emakume denen arpegietan
halako animalikeria somatzen dut
zoramena arpegi-idorra mirada fijoan.

Ihauteria da ihauteri gaua
ta inork ez daki bakoitzaren bakardadearen berri.
Argi bakoitza itzalean hiltzen da
agoni ixilean
nola Kristo profanatu hori bilhutsik
bide bazterrean hain desesperatuki etsia
agonian infernuetara jetxia
hirugarren egunik gabeko Kristoa
sinesten dut.
Eta argiak milaka izanik ez dute argi egiten.
Tarteka gaua da jabe.

Hala gu hala gure bakardadean
ihauteri gabeko hirurak eta bost inguruan.

Bitartean ametsa da
zuk erran didazuna maitea:
maite nauzula enia zarela.

Gaua zen ta ilargi haundia
gezurrezko gaua gezurrezko ilargia.
Bi itzal besterik ez ginen
lilurazko gau hartan
itsasoaren ertzean eta
haitz haundi baten gainean

TXORABIOA

Ez da ezer ez da egia
kontra nagona naiz
kontraren kontra
ta inor ez dago nere alde.

Gauerdian nago
romantikuen ugar-tean
izatearen muga-n
muga-ren muga-n.

Eta Sade-ko markesaren gazteluan.

Gauerdian nago
ta hilak ditut lagun
Aragon gazte Tzara Neruda
Leautreamont Lelian gizarajoa
Kafka
eta Beaudelair-en begirada tristea.

Gauerdian nago
ta itzalak ditut lagun
bakarrik ez naizen
sekula sekulakotz.

maitea zure besoetan
ez da ilargirik ez izarrik
zure besoetan maitia
galdu egiten naiz ez dakit nungo bi-
deetatik.

Enamoratua hondarraren gainean
idatzi dut zure izena maitea
hondarraren gainean eta uraren ertzean
B. La femme que j'ai choisie
la femme que j'ai chérie.
Irudi banal eta eternalak
(bihotza ta gezia)
marrasten nituelarik
hondarraren gainean eta uraren ertzean.

POETA BERRIA

*zure elea
ez da gurina eta esnea:
harria itsasoa eta haizea.*

Munduaren hatsa
nahi nuke atzeman
Europako bide ugarietan
(hainbeste jendetza eta ni hain bakar)
eguerdiko eguzkia adora
goizetik-goizera lana
arratsaldetan jainko beltzakin josta.

(baina ez zait ardura)
eta gauetan
bide ertzean naiz ezarriko
harri-meta txiki baten alboan
t'ankak gurutzaturik
hartuko dut gitarra
bardoaren gisa
ta eresi bat kantatuko
ardura gabe ta triste:

Oi hiri oi izar oi ortzi
ez duzue balio ezer
gizonaren irri ta keinu batek
zuetako mila balio dute
oi hiri oi izar oi ortzi
ez duzue balio ezer.

Zoaz eta esaiozu Rilke-ri:
izarren hautsa krudela da
eta ilargiaren esneak
goragala ematen dit.

Eta poblatuko dut
ene animaren bakardadea
gizonaren irriz ta neskatxaren musuz

Deituko ditut lagun berriak:

Fauno zaharrak ene lagunak
bidetan zehar zabiltzatenak
Picassoren Arlekin oria
(Kafka bera ote pailazoz jantzia?)
Pierrot gorria
eta mundu guztiko clown
arpegi tristeak
jazkera gorria eta txano berdea.

«...MAIS DEBARRASSE DE QUI? C'ETAIT BIEN SIMPLE: DEBARRASSE DU DIMANCHE... LE CAUCHEMAR, LA TRAGEDIE, SELON W., C'ETAIT DIMANCHE...» (J. GREEN). Igandearen haunditasunean galdu egiten naiz. Igandeetan uneak luzeago dira, zeru tartearak zabalago, orduak pausoki igaroten dira. Igande goizean aspertu egiten naiz, arratsaldean ez dakit nun naizen.

Haur denboran zorian berezi bat iastatzen nuen igande goizetan aidean nunbait galdurik Gaztetu naizelarik aspertu egiten naute igande goizetako lehen orduak, eta tristatzen ilunabarrean. Ezpidea ere hor dabil ibili jende tartean itzuli-mintzulika arratsalde aspergarri horietan.

Ordu horietan zer egingen? Gela barnean Kafka'ren Egunerokoa irakurtzen hasten ba'haiz hireak egin dik; misteriozko lupe itzaltsuetan galduko haiz. Dirurik ezpaduk (ondo ezagutzen diat estudianteen poltsa urri hori) ezin pasa noski neskatzari ipui xuri-gorriak erraiten denbora guziz. Bakarrik ba'habil, ta sentipen larriren batek kilikatzen ezta-rria edo sabel-ondoa edo ankak, bildur ba'haiz, tira egik pipa liburu montoiaren tartean dagoana ta tabako Holandresez beterik (Oi «Amsterdamer» tabako gozo bilo-oria ta haren urrutietako usai liluragarria!: There is no tobacco like Amsterdamer tobacco!).

Inoren axolik gabe begira urrunera; orain ke xuriak urrunagotua ikusten dukan urrun lausotura... Bainan begira: itsasoa laino eta Donostia bera nekez ikusten diagu, Jaizkibel nekezago. Gaur ziurki Hondarrabi, Getharia eta Miarritzeko argiak ez dizkiagu ikusiko, ez ilargi santurik itsaso gainean. Gaitz'erdi.

Itzali gaitean elkarrekin, ez gogo argiz bizi izan sekula. Guretzat ilundu dituk gaba eta eguna.

Ordu honetan, inun aingura gota gabe, herria izpiritua itsasora. Daigun jira bat, daigun jira bi,... bat, bi, hiru. Eia!

(Kaia gainean txalupa zahar bat, beltza, kilez gora).

ABESTIAK

Taberna baten aurrean
nintzalarik amesti
bulkoak arrapatan
miletan zaizkit jauzi.

Triste eresi bat
hitzak ere triste
begiok nigarrez
itsasorat urtzen.

Poetaren gogoa
bizi dabil airean
amets herrian errege
mundu honetan pobere.

BEAUDELAIREN GISA

Higuina eta tristura begi bietan
gizonak ez diote engainatzen.
Parre ta irri zurietan
haragiaren grinak ez du berotzen
bere ezpainik, ez bihotzik.
Desprezio eta higuina dario
begi bi galtzetatik.

Maite haut maite,
kaleetako zozoak ez beste.
Maite haut maite
banan gorrotoz ta zoramenez
hire gorputza nire animaren truke.

EGUZKI BERRITAN

Amets ilunezko gauaren on ondotik
begi berriekin ikusten baduzu
ortzi berri bat, maitasun kolore
egiazkoa, lilurazko izar-ilargirik gabe,
ez gehiago pentsatu,
eguzki berritan zaude.
Ez galda, ez bila,
zalantza oro bazter,
eguzki berritan zaude.

Izaki oro esnatu dedinean, ta itzalak erori,
eguna jeiki garaiean,
mendi mugak su eta gar,
oro egi, oro garbi, badaezpadako amets lilurarik gabe
naiz eta eguzkia oraindik ez agertu,
ba dakizu:
eguzki berritan zaudez.

Hemeretzi edo hogeit hamar urte inguruan
lasai sentitzen ez bazara, zeure giroan
gorputz eta izpiritu indarrez gainezka
mundu zabalaren beharrez.
Eta irazan indarra somatzen baduzu,
beste izaki baten beharra,
maitasun lehertze giharra,
ez galda, ez bila,
zalantza oro bazter
axoliki gabe dei egizu:
eguzki berritan gaude.

ZORIONA, ZORIONTTOA

Kantatu nahi dut kanta bat
axola gabe
inorentzat
haizeari beharbada
beharbada itsasoari
Edozein blue
azkenengo modako airea,
oxkira honek ene gorputzean iraun artio
eguzki eskax hau izkutu artio

(Dios, zer da zoriona zorionttoa atsegina?)

Minutu batean ardurarik gabe egotea minutu honetan
ixtantearen laburrunean.

Edozein gauza zoriona da
zorionttoa

besterik ezean.

Edozein une ona da bizitzea

Edozein kanta axolik gabe kantatzea:

koblatzen dutalarik
(aire banal bat)
zaude loak harturik
gauazk'ametsa bezala
ene kantua zautzula.

YOKNAPATAWPHA-ko KONDAT-HERRIAN

P A U S A L D I A

FAULKNER-RI GORASARREA

(ene orrietatik)

P O E R E N A ::::::::::

.the summer dream beneath the tamarind tree..

.uda-ko amets(a) (berdea) tamariza-ren (geriz)pean.

mendabala-mendabala-mendabala-mendabala-mendabala-m.

GERRATE ONDORENA

Altsasua, gerrate ondorengo ixil-unea.
Pagadietan atxeman diat gotorkeria.
Bihotzean hildura. Bidekurutzetan
ikusi dizkiat gizonak bakanduak,

mutu geldiak,
estrapuzko kapusaiaz buruak eztaliak,
mendiari buruz atarrapazka gora zoazila
pausaldirik gabe, oi arraza galdua,
madarikatua.

No-man's-land bihurtua zakuskagu
oi enea zinen lurraldea. Ze ausardia,
ze argibide egarria, milaka urtetan
etenik egoen mintzaira hirekin lokarritzea.

Hemen herri batek bere buruarekiko oroitzapena galdu bi-
de du, lurra kixkaldu da, gizona mututu, adimen izpia
iraungi, ziurki. Hemen euria aterri gabe ari da joandane-
ko mendeetan. Bisutsak txorabiatzen ez duan lur-barruko hil-
erriaren ixiltasun pixua dario. Hemen formaren arrasto-
rik ez dut ikusten. Dena zaigu xahutu, herrausi, ezeztu.
DESHISTORIAREN ERREINUA DA GURE HAU.

TX.E-ri

Paisaje pasartea laino urratu gisa
burutik zaizkit iragan geldiro
zine mutua antzo oroimena hustu beharrez.

Gure etxea mueble gabe zegoen hustua
anima gabetua bilhutsia
haizearen ulua ozenago zedin
isla bitarte hartan.

Kainuak abiada haundian agurtu ninduten
itsas gaineko zero zolan joan itzulietan
gris hitsean galdu bitartean

Lokarri ikus ezinaz inguratu ninduten
egazti ankerrek inguruka ta inguruka
besteengandik berezi ahaleginetan.

Oinazearen tantolak etengabe zerioten.

Ixurtegia zen etxe guzia.

**“GAUR IDEKI DIET ITSASOARI ETA
HAIZEARI LEIHOA” (1)**

Edertasun biluzia zein izugarria den!
ipar aldera ihesi doan itsas bazterraren linea
negua maite duten hegazti gris haundien hegada
eguzki-begi-haundia ugartearen gainean.

Gizon berriaren paradisia goiz alba da
eta enegan dagoen aingeru garbi ikaragarriak
birrindu zorian dauka arratsaldeko jainko beltza.
Gizon berriaren letaniak kantatzera noa
mila gauza umilen dizdira izkutuan:
nere ezpainetan daramadan basa-krabelina
hitz zuloetan dantzan darabilan ur berdea
eta nere gelako egunaren zazpi argi diferenteak.

Gizon berriaren alleluya kantatzera noa:
Hainbeste ontzi nere begietako itsasoan
hainbeste metal soinu urrutitik karraxiak albotik
hainbeste burni gurutzatu hain estruktura egokiak
nere oin-azpiko lurra gotortzen ari
ta oroen gainetik eguzki-begi-haundia
egia agirian ipintzen
munduko «i» petral oroen gainean puntua ipintzen.

Oi egunen batean ausartuko balitz gizona
ze indarra nolako seriotasun ikaragarria bere maitasunean
gorputz ahuldu hori libertatu garaiean!
Egun hartan hibai bat eta ispilu bat izanen naiz
eta Adanek gauza guziei izen berri bat
ezarri zien moduan
nik gauza zahar eta aintzinako hil guziei
izenak kenduko dizkiet
gauza hutsak soilak izan ditezen.

Orduan gizonak eta harriak berriro pakeak egingen dituzte
eta lano gorritua eguzki hildua
herdoiaren kolore errebelatua
(behin gizonaren esperantza)
hibaiaren kantsazioan islatuko dira
eta nere animaren egonarria eta esperantza izanen.

Far'eginen dut, egunen batean itsasoaren aurpegian
gauza guztien hutsunea garbi ikusiko dudanean
(ilargi erdia gauean, ilbera ontzi erratuaren moduan,
lano urratuetan galdurik, hondora zorian, itsas-ertzean)

Orduan gizon bakarti bat naiz izanen, itsasoko ispiluan
aurpegi idorrari galdezka, ixilik galdezka,
orduan, eguna ez da urruti, itsasoak bakarrik
salbatuko gaitu, bakarka, bakanka, zu eta ni adiskide zo-
rigaiztoa

neska batek, Zumaiko barrean, zutunik biok
galdetu dit, galdera mutua, lerroka igaro diren
azkenengo kainuen arabera, nora doazen, nora goazen
eriturik, galdezka, itsuturik, begiak haundiz idekirik

Bainan inularrean nehor ez da oroituko zutaz maitea
bakarti ororen gisa zure kanta kanta bortitza izan arren
norbait abesten ari dela, ari dela, somatu arren
historiaren zer-esanaz galdezka ari den zotin galdua.

Bainan inularrean nehor ez da oroituko zutaz maitea
birjina bortxatua, agur erregina, oi bihotzbera, oi errukiorra.

CESAR VALLEJO

...Bere poesiari darion ondorik gabeko tristura eta etsipena, jatorrizko kulturaren barne-sostenguak galdu dituen herriarena da. Azken aldian, imintzio eta espanturik gabeko rebeldia zen Vallejo-rena – amildegi ertzean hutsuneari zuzendutako marmarra laua:

Parisen hilko naiz ekaitz egun batez
iadanik oroitzapenean dudan eguntto batean.
Parisen hilko naiz – et'hal'ere ez dut aldeginen –
ostegun batez bai, zeren bertso hok idazten ditudan
ostegun honetan, ene besondoa proba gogorrean bait du ipini.

Egun bezain bakar ez naiz sekulan aurkitu
hainbeste bide ibili ondoren.

Cesar Vallejo hil da, denek zigortzen zuten
gizajoa hain otzana izan arren;
makila eta zigorrez lurperatu zuten
lekuko dira: osteguna eta bosondoak,
euria, bakardadea eta bideak...
bai ostegun batez agian, udazkenean.

ACUARIUM EDO ITSASPEKO HERRIA

Ene begietan euria
itsas gainean langarra.
mundutik aparte
itsaspeko herri honetan
uhinak uhinen ondotik
hutsuneak izugarrizko
tarteak idekitzen
oraina eta geroaren
binbitartean.

Otoi esaidazu maitea
pausa-une honetan nun
aurkitzen garen. Mundua
mundu den edo ta
miliunka esferen artean
zeinen baitan gauden gu
zu eta biok bakarrik maitea.

Bizitza bi memoria
galduen arteko
leize bat dela dirudi.
Izpilua hamar mila zatitan
erdibitu zaiku.
Amasabelean lez lurrunez
inguraturik bizi gara
itsaspeko herrian.

Hemen gizakiak
arrain bilakatu dira
metamorfosis luze baten ondoren
eta arrainak aldiz
giza begi soil besterik
ez dira gure gauaren erdian.
Bakarrik diote, masopak
mendebalderuntz
ihesi joan direla,
faropeko harrien ondotik iraganaz...

Egunen batean beharko dugu pausatu
udarako egun narras luzeren ondoren
giza errealidade humilaren ohean etzan
banitate oroetaz bilhustu, marmario guzietaz
et aazken finean gure baitara itzuli
ene buruari so egin, hain bitxia
estrainioa, birrindua eta madarikatua
ene burua, eta ene baitara itzuli
haur baten begiez inguru-muruak begiratu
Bilhustu, hustu, sentipen oro bazter
ez gorrota, ez ahalegin
betierako ixil-aldiaren sabore humila astiro jasta
Ur-lo isilaren sabelera ondora.

SALAMANCA I

Jardineko urratsak gaztaro
tormentatu baten oroitzapena dute xahutzen.
Salamanka aldean Tejares.
Hibaiko ur beltzean ene aurpegia islatzen.
Chamberiko txabola txiroak
iriaren garezur munoan.
Izudura eta biok harriturrik...
Hibai bat bestearen ondotik geldiro
Tormesek amets-guraz ninduen inguratzen.
Larridurak amore eman ninduen
abia haundian zetorren Gaztelako gaua zabala.

SALAMANCA II

Albaradan, Albaradan
on Miguel heriotz-ondotik kabitu ezinik oihuka daukazu
Miguel, Van Gogh, amairik gabeko bideak
begi ernaiak, atzapar kixkilduak
pakea zuengan, ixtante honetan bederen pakea zuengan
giza larriduraren gau honetan
giza birrinduen gaua, ama gurea, arreba
pakea, zuengan, pakea zuengan, pakea zuengan.

SALAMANCA III

Salamanka aldean Tejares:
haize errota eroriaren ondoan
burnizko zubi pean,
Eiffelen zubia, erausi berria
haize errota eroriaren ondoan
itsu-mutilak atsedan piskat du hartzen.

Gure ugarteak igazko xarma ia dena galdu du. Tamarisak urritu egin dira mendiaren maldan. Ikusten diren bakanak herrenkan ezarriak daude, lerro berdinetan, bidearen itzuli-mintzuliak oro jarraiki, pasieran dabiltzan neskame axola gabearen apaingarri. Deabruak baino libreago zirenak hain domatuak. Sorginak bezain berritsuak, sekulakotz ixilduak.

Zai gaude, urrutira eramanez gaituen ontziaren zai, arraldeko oholdia bezala olatuen joan-etorrien menpean. Gure gogamenak ritmo bera du, ritmo tolesgabeara, denbora eta nahimenari etena.

Bitartean berriketan jardun gara. Bost gara edo sei exerita itzalean, gelaren txoko ilunenean...

Orain SAko izaroak bere xarma ia dena galdu du. Igaz, hain urruti gabe, lilurazko mundu aparta bat zen herriko mutilentzat. Mutilen aberri askatua zela zioten. Hara orduko ez zen herriko legea edo etxekoa nagusi, heurak heuren fantasiaren gisa moldatutako kapritxoeko legea baizik. (Berriz ere romantiko bat naizela esanzen didate, romantikoen erru gabeko naturaren mitoa berriztatzera natorrela, Rousseau eta Flauberten «éducation sentimentale» delakoaren barne-mina dudala, Robinson Crussoeren iratxoakin nabilela berriro, asko dela e.a...)

Udazken amaierako eguntto bat zen, flakeziaz betea, xirimiriz hordi-hordi eginikako egun tentel horietakoa...

AURKIBIDE

AMAIA-RENAK	7-52
--------------------	------

MIKEL:

Amorio galduak	57
Denboraren marka	61
Bertso urratuak	63
Egusenti izoztua	65
Itsas aurrean	67
Esperpento	69
Bitartean	71
Txorabioa	73
Maitea zure besoetan	75
Enamoratua	77
Poeta berria	79
Mais debarrasse	83
Abestiak	85
Beaudelaireren gisa	87
Eguzki berritan	89
Zoriona, zorionttoa	91
Yoknapatawpha	93

Gerrate ondorena	95
TX.E-ri	97
Gaur ideki diet... ..	99
Far'eginen dut	103
Cesar Vallejo	105
Acuarium edo... ..	107
Egunen batean	109
Salamanca I	111
» II	113
» III	115
Gure ugarteak	117

irakur sail:

BATASUNA. — Euskaltzaindia.

BIZI GARRATZA — MENDU ZAHARRAK. — A. Zubikarai
SUSTRAI BILA. — Larresoro.

BERTRAND RUSSELLEN IRITZIAK. — Jone Forcada.

LURRAREN KONDAIRA. — X. Garmendia.

ARRÓTZA. — A. Camus-J.M. Agirre.

ATSOTITZAK ETA NEURTITZAK. — Oihenarte-Larresoro.

POEMA BILDUMA. — Mikel Lasa eta Amaia Lasa.